



## IRURTZUNGO UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN DE IRURTZUN

2024KO MARTXOAREN 20KO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

**Irurtzunen, bi mila eta hogeita lauko martxoaren 20an, arratsaldeko 19:00ak direnean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Irurtzungo Udaleko Udalbatza bildu da, ez-ohiko osoko bilkura egiteko, aldez aurretik legeak agintzen duen moduan deituta, Unai Razkin Iriarte jauna alkate - lehendakaria buru dela, eta bertan direla ondoren aipatzen diren zinegotzi hauek:**

Agurtzane Garijo Peralta andrea (EH Bildu).

Ana Balda San Juan andrea (EH Bildu).

Irati Ollakarizketa Iriarte andrea (EH Bildu).

Jon Navarro Carrillo jauna (EH Bildu).

Joseba Royo García jauna (EH Bildu).

Juan José Iriarte Vitoria jauna (EH Bildu).

Luis Enrique de la Calle Moreno jauna (UPN).

Miguel Ángel Martínez García jauna (UPN).

Ez dira etorri Aitor Larraza Carrera jauna (EH Bildu) eta Domingo Goñi Sarasola jauna (UPN).

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

Alkateak bilerari hasiera eman dio 19:02an, udal-idazkariari ongietorria eginez, hilabetez egon baita aldi baterako ezintasun-egoeran.

ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE 20 DE MARZO DE 2024

**En Irurtzun, siendo las 19:00 horas del día 20 de marzo de dos mil veinticuatro se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar **sesión extraordinaria**, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Don Unai Razkin Iriarte, con la asistencia de los concejales y las concejalas de la Corporación que se enumeran a continuación:**

Doña Agurtzane Garijo Peralta (EH Bildu).

Doña Ana Balda San Juan (EH Bildu).

Doña Irati Ollakarizketa Iriarte (EH Bildu).

Don Jon Navarro Carrillo (EH Bildu).

Don Joseba Royo García (EH Bildu).

Don Juan José Iriarte Vitoria (EH Bildu).

Don Luis Enrique de la Calle Moreno (UPN).

Don Miguel Ángel Martínez García (UPN).

No asisten Don Aitor Larraza Carrera (EH Bildu) y Don Domingo Goñi Sarasola (UPN).

Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Doña Eguzkiñe Aiesa Andres.

El Alcalde da inicio a la sesión siendo las 19'02 horas dando la bienvenida a la Secretaria Municipal, que ha permanecido en situación de incapacidad temporal durante meses.



Ondoren, jakinarazi du oposizioak aurrekontuak eta plantilla organikoa berezita bozkatzea eskatu duela, eta horretarako eragozpenik ez dagoela jakinarazi du.

Deialdiaren gai-zerrendako gaiei ekin aurretik, alkateak azaldu du nitxo bat emateko eskatu dela, eta interesdunek dagoeneko tasa ordaindu dutela. Hori dela eta, komenigarritzat jotzen da puntu hau bilkura honetan sartzea, espedientea ixteko, eraginkortasun-eta efizientzia-printzipioei jarraikiz. Gaiaren premiazkotasuna bozkatu da, eta, bertaratutako zinegotzien aho batez, gai-zerrendan sartzeko erabakia hartu da.

### **1.- 2024ko urtarrilaren 25eko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.**

2024ko urtarrilaren 25eko osoko bilkuraren akta eztabaidagai eta bozkagai jarri da eta, hitzartzerik izan gabe, aho batez onartu da.

### **2.- 2023ko abenduaren 21eko bilkuraren aktan dauden akatsen zuzenketa.**

Alkateak azaldu duenez, 2024ko urtarrilaren 25eko bilkuran onartu ondoren, bi akats antzeman dira 2023ko abenduaren 21eko osoko bilkuraren aktan, honakoan dautzanak:

Lehena, gai-zerrendako 9. puntuan jasotakoa, Zerga Kontroleko Planari buruzkoa, aktaren euskarazko bertsioa zuzena da; izan ere, adierazten du plana 2024-2026 urteetakoa dela, eta gaztelaniazko bertsioan, berriz, 2024-2025 urteetakoa dela jasotzen du. Beraz, zuzenketa honen bidez argitu nahi da Zerga Kontroleko Planaren indarraldiaren data zuzena euskarazko bertsioan jasotakoa dela, hau da, 2024-2026 urteak.

*A continuación, hace saber que la oposición ha solicitado que se voten por separado presupuestos y plantilla orgánica, e informa de que no existe inconveniente para ello.*

*Antes de entrar en los asuntos contenidos en el orden del día de la convocatoria, el Alcalde explica que se ha solicitado la concesión de un nicho, cuya tasa ya ha sido abonada por parte de las personas interesadas, por lo que se considera conveniente incluir dicho punto en esta sesión, para cerrar el expediente, en virtud de los principios de eficacia y eficiencia. Se vota la urgencia del asunto y, por unanimidad de los y las ediles presentes, queda incluido en el orden del día.*

### **1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria del día 25 de enero de 2024.**

*Se procede a someter a debate y votación el acta de la sesión plenaria del día 25 de enero de 2024, que sin toma de palabras, queda aprobada por unanimidad.*

### **2.- Corrección de errores del acta de la sesión plenaria del día 21 de diciembre de 2023.**

*El Alcalde explica que, con posterioridad a su aprobación en sesión de 25 de enero de 2024, han sido advertidas dos erratas en el acta del pleno de 21 de diciembre de 2023, consistentes en lo siguiente:*

*La primera de ellas, contenida en el punto 9 del orden del día, sobre el Plan de Control Tributario, la versión en euskera del acta está correcta, ya que indica que el Plan es relativo a los años 2024-2026, mientras que la versión en castellano recoge que es relativo a los años 2024-2025. Así pues, mediante esta corrección se pretende aclarar que la fecha correcta de vigencia del Plan de Control Tributario es la recogida en la versión en euskera, es decir, años 2024-2026.*



Beste akatsa gai-zerrendako 10. puntuan dago, dirulaguntzak emateari buruzkoan. Izan ere, nahasmena dago 2023ko aurrekontuaren kargura emandako mila euroko dirulaguntza baten hartzailearen inguruan. Osoko bilkuran Nafarroa Oinezen aldeko dirulaguntza gisa tratatu zen arren, aktan Korrikaren aldeko dirulaguntza gisa jaso zen, baina 2023an ez zen Korrikarik egon, eta, gainera, Udalak 2024ko Korrikan erositako kilometroa faktura bidez justifikatzen da.

Gaia bozkatu da, inork ez baitu bere hitz-txanda erabili. **Osoko bilkurak, aho batez, 2023ko abenduaren 21eko osoko bilkuraren akta zuzentzea onartu du.**

### **3.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2024/21tik 2024/91 ebazpenera.**

Alkateak ebazpenak azaldu ditu, 2024/24tik 2024/91ra bitartekoak, 2024ko 21., 22. eta 23. ebazpenak aurreko osoko bilkuran jakinarazi zirelako.

Alkateak jakinarazi du Alkatetzaren 2024/89 Ebazpenaren bidez baimendutako ordainketei buruzko informazio zehatza bidaliko diela Udalbatzako gainerakoiei, eta gaia hurrengo Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartuko dela.

Hitz egiteko txanda ireki da, baina, hitzik hartu gabe, osoko bilkura jakitun geratu da, alkatetzaren 2024/24 ebazpenetik eta 2024/91 ebazpenera.

### **4.- 2022ko Kontu Orokorra.**

Alkateak jakinarazi du puntua gai-zerrendatik kendu behar dela; izan ere, kontu-hartzaileak jakinarazi

*El otro error radica en el punto 10 del orden del día sobre concesión de subvenciones, y consiste en una confusión acerca de la destinataria de una subvención por importe de mil euros concedida con cargo al presupuesto de 2023 que, a pesar de haberse tratado en el Pleno como subvención en favor de Nafarroa Oinez, en el acta fue recogida como subvención en favor de Korrika, siendo que no hubo Korrika en 2023 y, además, el kilómetro comprado por el Ayuntamiento en la Korrika de 2024 queda justificado mediante factura.*

*Se somete el asunto a votación sin que ninguna persona electa haya hecho uso de su turno de palabras, siendo que **el Pleno, por unanimidad, acuerda aprobar la corrección del acta del pleno de 21 de diciembre de 2023.***

### **3.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 21/2024 hasta la 91/2024.**

*El Alcalde procede a explicar las resoluciones de alcaldía, desde la 24/2024, hasta la 91/2024, porque las Resoluciones 21, 22 y 23 de 2024 ya habían sido informadas en el Pleno anterior.*

*El Alcalde informa de que enviará al resto de la Corporación información detallada sobre los pagos autorizados mediante Resolución de Alcaldía 89/2024, y que será incluido en el orden del día del próximo pleno.*

*Se abre el turno de palabras, pero, sin que haya toma de palabras, se da el Pleno por enterado de las resoluciones de alcaldía 24/2024 a la 91/2024.*

### **4.- Cuenta General de 2022.**

*El Alcalde informa de que el punto debe ser retirado del orden del día, ya que Intervención informó de que la*



zuen kontu orokorra jendaurrean jarri behar dela 15 egunez, osoko bilkurara eraman aurretik.

### **5.- 2024ko aurrekontua eta plantilla organikoa onartzea.**

Alkateak gaiaren kokapena egin du, 2.806.885 euroko diru-sarreraren aurreikuspena dagoela adieraziz. Ondorioz, zenbateko bereko gastuen aurreikuspena egin da, gizarte-zerbitzuen eta udalerriko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin orekatutzat jo duena.

Jarraian, 2024ko ekitaldirako Aurrekontuaren ildo nagusiak azpimarratu ditu, ohiko gastuez eta ohiko langile-gastuez gain:

Gizarte Ongizatean, Gizarte Zerbitzuetarako partidak handitzen jarraitzen du.

- Gizarte Zerbitzuek kudeatutako gizarte-larrialdietarako laguntzak mantenduko dira.
- Enplegu Sozial Babestuaren aldeko apustuari eutsi zaio (Iturraskari programa).

Aurten ahalegin berezia egin da hezkuntzan, eta Atakondoa ikastetxe publikoan hainbat jarduera aurreikusten dira: galdararen aldatzea eta ikastetxeko bigarren eta hirugarren solairuen birmoldatzea.

Herri-mugimenduekin lankidetzan jarraitzen da, besteak beste kultura-, kirol-, gizarte-, hizkuntza-jardueratarako, etab. Ildo horretan, aurreko legegintzaldian lankidetzak hitzarmenak egiten hasi ziren elkarte interesdunekin.

Azken hilabeteotan lantzen ari den Mugikortasun Planarekin aurrera jarraitzeari dagokionez, zinema zaharra zegoen elizaren lursaila erostea proposatu da, baita liburutegiaren ondoko aparkalekua birmoldatzea ere.

*Cuenta General debe estar en exposición pública durante 15 días antes de ser sometida al Pleno.*

### **5.- Aprobación presupuesto y plantilla orgánica 2024.**

*El Alcalde introduce el punto, indicando que hay una previsión de ingresos de 2.806.885 euros. En consecuencia, se ha hecho una previsión de gastos por el mismo importe, que ha valorado como equilibrada con el objetivo de mejorar los servicios sociales y la calidad de vida de los vecinos y vecinas del municipio.*

*A continuación, pasa a recalcar las líneas principales del Presupuesto para el ejercicio 2024, además de los gastos corrientes y de personal ordinarios:*

*En Bienestar Social, se continúa aumentando la partida para Servicios Sociales.*

- *Se mantienen las ayudas de emergencia social, gestionada desde Servicios Sociales.*
- *Se mantiene la apuesta por el Empleo Social Protegido (Programa Iturraskari).*

*Este año se hace especial esfuerzo en Educación, con actuaciones en el Colegio Público Atakondoa consistentes en el cambio de caldera y remodelación de las plantas segunda y tercera del centro.*

*Se sigue colaborando con el movimiento popular, para diferentes actuaciones culturales, deportivas, sociales, lingüísticas, etc. En este sentido, la pasada legislatura comenzaron a celebrar convenios de colaboración con las asociaciones interesadas.*

*En cuanto a seguir avanzando con el Plan de Movilidad en el que se viene trabajando en los últimos meses, se plantea la compra del terreno perteneciente a la Iglesia donde se ubicaba el antiguo cine, así como la remodelación del parking anexo a la biblioteca.*



Amaitzeko, ondare publikoa mantentzeari dagokionez, Larrazpi lokalean leihoak eta elektrizitatea aldatzeko jarduketak aurreikusten dira, Musika Eskola birmoldatzeko egiten ari diren obrak aprobetxatuz.

Enrique de la Calle jaunak hartu du hitza, UPNko bozeramaile gisa, eta bere talde politikoa abstenituko dela iragarri du.

Gaia bozkatuta, **Osoko Bilkurak, EH Bilduren hautetsien aldeko botoekin eta UPNkoen abstentzioarekin, erabaki du:**

LEHENENGOA.- Hasierako onarpena ematea 2024ko ekitaldirako aurrekontuari.

BIGARRENA.- Erabaki hauek Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki - oholean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, espedientea 15 egun baliodunez erakutsiko da idazkaritzan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta egoki irizitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten; epe hori igarota erreklamazioak aurkezten ez badute, behin betiko onartutzat joko da.

Jarraian, alkateak azaldu du proposatzen den plantilla organikoa aurreko urtekoaren berdina dela, bi aldaketa izan ezik:

Alde batetik, Gaztetxoko begiraleei %12ko mailako osagarria gehitzea proposatzen da, lanpostu horietako

*Para acabar, en la línea de mantención del patrimonio público, se prevén actuaciones de cambio de ventanas y electricidad en el local de Larrazpi, aprovechando las obras de remodelación de la Escuela de Música que se están llevando a cabo.*

*Toma la palabra don Enrique de la Calle, en su calidad de portavoz de UPN, anunciando que su grupo político se va a abstener.*

*Se somete el asunto a votación, siendo que **el Pleno, con los votos a favor de los cargos electos de EH Bildu, y la abstención de los de UPN, acuerda:***

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente el Presupuesto para el ejercicio 2024.*

*SEGUNDO.- Dar publicidad a estos acuerdos en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios municipal.*

*TERCERO.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 276 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, el expediente se expondrá en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobado definitivamente, si transcurrido dicho plazo no se formularon reclamaciones.*

*A continuación, el Alcalde pasa a explicar que la Plantilla Orgánica que se propone es, prácticamente, la misma que el año anterior, a excepción de dos modificaciones:*

*Por un lado, se propone añadir un 12% de Complemento de Nivel al monitorado de Gaztetxoko,*



baldintzak antzeko ezaugarriak dituzten lanpostuek dituztenekin parekatzeko.

Bestalde, 9. plazan (Zerbitzu Anitzeko Ofiziala) lanpostuko osagarriaren %10eko igoera, zerbitzuko gainerako langileekin egiten dituen aginte-funtzioak konpentsatzeko.

Hitzik hartu gabe, plantilla organikoa bozkatu da, eta **Udalbatzak, EH Bilduren zinegotzien aldeko botoekin eta UPNkoen kontrako botoekin, honako hau erabaki du:**

LEHENENGOA.- 2024. urteko plantilla organikoa hasiera batez onestea.

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, onetsitako plantilla idazkaritzan egongo da aztergai 15 egun baliodunetan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek espedienteaz aztertu ahal izan dezaten eta bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak egiteko aukera izan dezaten. Epe hori igaro eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

HIRUGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean, iragarki Oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

Bozketaren ondoren, Alkatetzak UPNko bozeramaileari, Enrique de la Calle jaunari, eman dio hitza, eta hark azaldu du plantilla organikoaren aurkako botoak garbiketako langileak plantilla organikoan sartzeari erantzuten diola; izan ere, ez zeuden ados zerbitzuaren publikazioarekin, eta bere jarrerari eusten

*con el objetivo de equiparar las condiciones con los puestos de trabajo de similares características.*

*Por otro lado, un aumento del 10% del Complemento de Puesto de Trabajo en la plaza número 9 (Oficial de Servicios Múltiples), en compensación por las funciones de mando que lleva a cabo para con el resto de personal del servicio.*

*Sin toma de palabras, se vota la plantilla orgánica y la **Corporación, con los votos a favor de los ediles de EH Bildu y los votos en contra de los de UPN, acuerda:***

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la Plantilla Orgánica para el año 2024.*

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 235 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, la plantilla aprobada se expondrá en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobada definitivamente, si transcurrido dicho plazo, no se formularon reclamaciones.*

*TERCERO.- Publicar este acuerdo en la web municipal, en el Tablón de Anuncios y en el Boletín Oficial de Navarra, para público conocimiento.*

*Tras la votación, Alcaldía cede la palabra al portavoz de UPN, don Enrique de la Calle, quien explica que el voto en contra de la plantilla orgánica se debe a su oposición a que el personal de limpieza esté incluido en plantilla orgánica, dado que no estaban de acuerdo con la publicación del servicio y mantienen su postura.*



diote.

### **6.- Urbasa kaleko 1. Zenbakiko xehetasun-azterlana behin betiko onartzea.**

Alkateak azaldu du prozedura hau Alkatetzaren Ebazpen bidez onartu zela hasiera batez, eta izapidetzean, jendaurrean jarritako aldiari, onartua izan zen alegazio bat egon zela. Ondorioz, proiektuak aldaketa txiki bat izan du hasierako proposamenarekin alderatuta, leihoak alboetara pasatzean datzana. Legez aurreikusitako izapideak bete ondoren, gaia behin betiko onartu daiteke.

Hitzik hartu gabe, bozketa egin da eta **Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau erabaki du:**

LEHENENGOA.- Urbasa kaleko 1. zenbakiko Bizilagunen Erkidegoak sustatutako xehetasun - azterlanari behin betiko onarpena ematea, alegazioaren ondoren egindako aldaketarekin. Horren arabera, deskribatzen da igogailuaren instalaziorako obrak etorkizunean egiteko behar diren lerrokaduren aldaketa eta Irurtzongo Urbasa kaleko 1 zenbakian dagoen eraikinean oztopo arkitektonikoak erabat kentzea. Ezin dira eraikinaren espazio pribatiboak eta egungo lerrokadurak errespetatu.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea xehetasun azterlanaren dokumentu teknikoarekin batera.

### **7.- Udal Plana egituratzen duen aldaketa puntuala behin betiko onartzea.**

Alkateak gogorarazi du Irurtzongo Planaren "APA-U.35 eta APA-U.21" industria-erabilerako unitateetako

### **6.- Aprobación definitiva Estudio de Detalle en calle Urbasa, 1.**

*El Alcalde expone que este procedimiento fue inicialmente aprobado mediante Resolución de Alcaldía, y durante su tramitación, en el período de exposición pública, hubo una alegación que fue aceptada. En consecuencia, el proyecto ha sufrido una pequeña modificación con respecto a la propuesta inicial, consistente en pasar las ventanas a los laterales. Habiéndose cumplido los trámites legalmente previstos, se somete el asunto a aprobación definitiva.*

*Sin toma de palabras, se procede a la votación y el Pleno, por unanimidad, acuerda:*

*PRIMERO.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle promovido por la Comunidad de Vecinos de la Calle Urbasa, 1, consistente en describir la modificación de las alineaciones necesaria para la futura ejecución de las obras de la instalación de ascensor y supresión completa de las barreras arquitectónicas en el edificio sito en la calle Urbasa número 1 de Irurtzun, la cual no es posible respetando los espacios privados del edificio ni las alineaciones actuales, con la modificación efectuada tras las alegaciones.*

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a las personas interesadas para su conocimiento y efectos y publicarlo en el Boletín Oficial de Navarra junto con el documento técnico del estudio de Detalle.*

### **7.- Aprobación definitiva de la modificación puntual estructurante del Plan Municipal.**

*El Alcalde recuerda que esta modificación estructurante del Plan Municipal fue inicialmente*



aldaketari 2023ko urriaren 25eko Osoko Bilkuran eman zitzaiola hasierako onespena. Izapide guztiak egin direla adierazten du, beraz, gaia behin-behinean onartzeko eskatu du.

Hitzartzerik izan gabe, gaia bozkatzeari ekin zaio eta **Udalbatzak, bertaratutako hautetsien aho batez, erabaki du:**

LEHENENGOA.- “APA-U.35 eta APA-U.21” industria-erabilerako unitateetan Irurtzungo Planaren aldaketa egituratzailea behin-behinean onartzea.

BIGARRENA.- Espediente osoa Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Sailari bidaltzea, behin betiko onar dezan.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Egintza hau sustatzaileei jakinaraztea, eta adieraztea egintza horrek ez diola amaiera ematen administrazio-bideari, eta legez dagozkion errekurtsoen araubidea adieraztea.

### **8.- Bake-epailearen ordezkoren izendapena baliogabetzea.**

Alkateak azaldu du 2023ko abenduko osoko bilkuran Udalbatzak Irurtzunerako bake-epailea eta haren ordezkoa izendatu zituela baina, ondoren, jakin dela bake-epailearen ordezkoren izendatutako pertsona hainbat udalerritan kargu bererako edo antzeko baterako aurkeztu zela, eta beste udalerririk batean izendatua izan zela. Aipatutako karguak pilatu ezin direnez, Pablo Melendro López jaunaren alde Irurtzungo bake-epailearen ordezkoren gisa egindako izendapena baliogabetzea proposatzen da.

*aprobada en el Pleno del 25 de octubre de 2023. Indica que han sido cumplidos todos los trámites, por lo que se somete el asunto a su aprobación provisional.*

*No habiendo tomas de palabras, se somete el asunto a votación y el Pleno, **por unanimidad de las presentes, acuerda:***

*PRIMERO.- Aprobar provisionalmente la modificación estructurante del Plan Municipal de Irurtzun en las unidades de uso industrial “Apa-U.35 y APA U.b1”.*

*SEGUNDO.- Remitir el expediente completo al Departamento de Medio Ambiente, Ordenación del Territorio y Vivienda para su aprobación definitiva.*

*TERCERO.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*

*CUARTO.- Notificar el presente acto a las personas promotoras, señalando que el mismo no pone fin a la vía administrativa, con indicación del régimen de recursos que legalmente correspondan.*

### **8.- Anulación de la designación sustituto de Juez de Paz.**

*El Alcalde explica que en el Pleno de diciembre de 2023 se nombraron por parte de la Corporación tanto el Juez de Paz como su sustituto para el municipio de Irurtzun pero que, con posterioridad, se ha tenido conocimiento de que la persona que había sido designada como sustituto de Juez de Paz se había presentado para el mismo o similar cargo en varios municipios, habiendo sido nombrado en algún otro municipio más. Dado que no es posible la acumulación de cargos, se propone la anulación de la designación realizada en favor de don Pablo Melendro López como*





Hitzik hartu ez denez, gaia zuzenean bozkatzeari ekin zaio, eta **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

LEHENENGOA.- Irurtzungo bake-epailearen ordezkogisa Pablo Melendro López jaunaren alde egindako izendapena balio gabetzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiari helaraztea.

#### **9.- Nitxoa betiko uztea, hala bada gokia.**

Alkateak esan du Iván Moreno Fernández jaunak betiko nitxoaren eskaera egin duela.

Hitzartzerik egon gabe, Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- C eremuko H kaleko 154. nitxoa Iván Moreno Fernández jaunari betiko uztea.

BIGARRENA.- Honako akordioa eskatzaileari jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Udal Kontu-hartzaileari, eta jakinaraztea dagoeneko ordaindu dela lagapen horrengatik ordaindu beharreko tasari dagokion 749,00 euroko zenbatekoa.

#### **10.- Erregu eta galderak.**

Enrique de la Calle jaunak jakinarazi du entzun duela zenbait gazte igerilekuetako futbol-zelaia erabiltzen ari direla jolasteko. Gertaera horien arriskuaz ohartarazi du, igerilekuetan egiten ari diren obrak kontuan hartuta. Udalak neurriak hartzeko eskatu du, balizko gertakariaren baten aurrean udalaren erantzukizuna saihesteko beharra azpimarratuz. Alkatetzak erantzun

*sustituto de Juez de Paz en Irurtzun.*

*Al no haber tomas de palabra, se somete directamente el asunto a votación y **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

*PRIMERO.- Anular la designación realizada en favor de don Pablo Melendro López como sustituto de Juez de Paz en Irurtzun.*

*SEGUNDO.- Notificar el presente acuerdo a las personas interesadas.*

*TERCERO.- Dar traslado del presente acuerdo al Tribunal Superior de Justicia de Navarra.*

#### **9.- Concesión de nicho a perpetuidad, si procede.**

*El Alcalde dice que se ha recibido solicitud de nicho a perpetuidad por parte de Don Iván Moreno Fernández.*

*Sin haber toma de palabras, el Pleno, por unanimidad, acuerda:*

*PRIMERO.- Ceder a perpetuidad el nicho Nº 154 de la calle H de la zona C a Don Iván Moreno Fernández.*

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a la persona solicitante.*

*TERCERO.- Dar traslado de este acuerdo a la Intervención Municipal, haciéndole saber que la cantidad de 749,00 euros a abonar en concepto de tasa por esta cesión ya ha sido abonada.*

#### **10.- Ruegos y preguntas.**

*Don Enrique de la Calle informa de que ha oído que hay jóvenes que están utilizando el campo de fútbol de las piscinas para jugar. Advierte del riesgo de dichos hechos, habida cuenta de las obras que se están llevando a cabo en las piscinas. Solicita actuaciones por parte del Ayuntamiento, recalcando la necesidad de evitar la responsabilidad municipal en caso de*



du esparruaren barruan mugatuta dagoela jarduketa egiten ari den perimetroa; hala ere, kontuan hartu da neurri gehigarriak aztertzeko.

Gainera, Enrique de la Calle jaunak garraio publikoaren gaiaren bilakaerari buruz galdetu du. Alkateak erantzun du kudeaketak egin zirela eta autobus gehiago gehitu zirela ordutegi desberdinetan, ordu-tarte guztiak hartuta geratu zirela eta harrezkero ez dela kexarik egon.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 19:23ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

Alkatea / El Alcalde,  
Unai Razkin Iriarte

*accidente. Alcaldía responde que dentro del recinto está acotado con vayas el perímetro donde se está llevando a cabo la actuación; no obstante, se toma nota para estudiar medidas adicionales.*

*Además, Don Enrique de la Calle pregunta la evolución del asunto del transporte público. El Alcalde responde que se realizaron gestiones por las que se añadieron más autobuses en diversos horarios, quedando cubiertas todas las franjas horarias y que, desde entonces, no ha vuelto a haber constancia de quejas.*

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 19:23 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extendiendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

ZIURTATZEN DUT  
Idazkaria / La Secretaria  
Eguzkiñe Aiesa Andres